Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2294

AGINDUA, 2009ko martxoaren 31koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei 2009-2010 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasteko baimena ematea eta horiek finantzatzeko dirulaguntzen programa arautzen duena.

Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezartzen du. Dekretu horren 8. artikuluaren arabera, behar bezala baimendutako ikastetxeek heziketa-zikloak modu partzialean eskaini ahalko dituzte eta eskaintza hau pertsona helduentzat baino ez da izango. Eskaintza honek heziketa-zikloaren lanbide-modulu guztiak hartu ahalko ditu bere gain eta ikasleek lanbide-moduluka egin ahalko dute matrikula, aipaturiko Dekretuaren 29. artikuluan adierazten den bezala.

Hori dela eta, 2008ko ekainaren 3ko Agindua eman da (2008ko uztailaren 4ko EHAA). Agindu horren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialean ematea arautzen du.

Bai 32/2008 Dekretuak bai 2008ko ekainaren 3ko Aginduak ezarritakoaren arabera, eskaintza hau behar bezala baimendutako ikastetxeek baino ezingo dute gauzatu. Aipatutako 2008ko ekainaren 3ko Aginduaren 4. artikuluan, hain zuzen, zehazten da heziketa-zikloak eskaintza partzialean eman nahi dituzten ikastetxeei horretarako baimena eman beharko diela Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak, Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzaren bitartez. Beraz, ikastetxeek baimena eskatu beharko dute, horretarako ezartzen diren prozedurari eta eskaera-ereduari jarraituta eta horretarako zehazten diren epeak beteta.

Beraz, Agindu honen xedea da arautzea, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasteko baimena ematea, eta, bestetik, irakaskuntza hori finantzatzeko dirulaguntzen programa.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

2294

ORDEN de 31 de marzo de 2009, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula, para el curso 2009-2010, la autorización a los centros docentes privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la impartición de ciclos formativos de Formación Profesional en la modalidad de oferta parcial y se regula el programa de ayudas para su financiación.

El Decreto 32/2008, de 26 de febrero, por el que se establece la ordenación general de la formación profesional del sistema educativo, en su artículo 8, determina que los centros debidamente autorizados podrán ofertar de forma parcial los ciclos formativos, quedando reservada esta oferta a las personas adultas. Esta oferta parcial podrá abarcar a todos los módulos profesionales del ciclo formativo, pudiéndose matricular el alumno o alumna por módulos profesionales, tal y como se señala en el artículo 29 del citado Decreto.

En este sentido, se ha dictado la Orden de 3 de junio de 2008 (BOPV de 4 de julio de 2008) mediante la que se regula la impartición de ciclos formativos de Formación Profesional en la modalidad de oferta parcial.

Tanto el citado Decreto 32/2008 como la Orden de 3 de junio de 2008 establecen que sólo los centros debidamente autorizados podrán realizar esta oferta. Concretamente en el artículo 4 de la mencionada Orden de 3 de junio de 2008 se determina que los centros educativos que deseen impartir ciclos formativos en la modalidad de oferta parcial deberán ser autorizados expresamente, por la Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, a través de su Dirección de Aprendizaje Permanente, por lo que deberán solicitarlo de acuerdo con el procedimiento y el modelo de solicitud y en los plazos que al efecto se determinen.

Este es pues el objeto de la presente Orden regular por un lado la autorización a los centros docentes privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la impartición de ciclos formativos de Formación Profesional en la modalidad de oferta parcial y, por otro, regular el programa de ayudas para su financiación.

Ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDEA ETA BALDINTZAK

1. artikulua.– 1.– Agindu honen xedea da arautzea Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei 2009-2010 ikasturtean heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasteko baimena ematea, betiere 2008ko ekainaren 3ko Aginduak modalitate hori arautzeko xedatutakoari jarraituta. Halaber, Agindu honen bidez 2009-2010 ikasturtean irakaskuntza hori finantzatzeko dirulaguntzen programa arautzen da.

2.– Agindu honen xedea betetzeko 2009-2010 ikasturtean erabiliko diren diru-baliabideak 564.415,00 euro izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan horretarako ezarritako aurrekontukredituen arabera.

Zenbateko hau aldatu egin ahal izango da, eskatutako dirulaguntzen guztirako zenbatekoa kontuan harturik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean beste laguntza-egitasmo batzuk bideratu ondoren aurrekontuak ahitu gabe geratu badira. Adierazitako aldaketa dirulaguntzak ebatzi baino lehen egin behar da. Aipatutakoaren berri eman beharko da Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

3.– Agindu honetan ezarritako prozedura sei hilekoa izango da gehienez ere.

2. artikulua.– EAEn Lanbide Heziketako heziketa-zikloak irakasteko baimen ofiziala duten itunpeko ikastetxe pribatuek parte hartu ahal izango dute. Heziketa-ziklook hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako antolamendu orokorra ezartzen duen Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak arautzen ditu.

3. artikulua.– Lanbide Heziketako heziketa-zikloen eskaintza partziala 2009-2010 ikasturterako baimendu eta, hala badagokio, finantzatu egingo da; eta horrekin batera ikasturte horretako Ikastetxearen Urteko Plangintzan sartu beharko da.

Modalitate honetan ikastetxe bati irakasteko baimena emateak ez du ezinbestez esan nahi finantzaketa jasoko duenik. Agindu honen bitartez baimena baina ez finantziazioa lortu duten ikastetxeek heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasten jarraitzeko borondatea berretsi egin beharko dute.

4. artikulua.– Eskaintza partziala zuzendaritza-taldeak egin behar du. Eskaintza horren oinarrian dauden datuak eskaintza partziala oinarritzen den heziketa-zikloekin inplikatuta dauden irakasleek, edo irakasleek

Por todo ello,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
OBJETO Y REQUISITOS

Artículo 1.– 1.– Es objeto de la presente Orden regular, para el curso 2009-2010, la autorización a los Centros docentes privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la impartición de ciclos formativos en la modalidad de oferta parcial, de acuerdo con la regulación de la modalidad establecida por la Orden 3 de junio de 2008. Asimismo, es objeto de la presente Orden regular el programa de ayudas para la financiación de dicha impartición en el curso 2009-2010.

2.– Los recursos económicos que se dedicarán al desarrollo de la presente Orden para el curso escolar 2009-2010 ascienden a un total de de 564.415,00 euros, según los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Este importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Educación, Universidades e Investigación y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

3.– El plazo máximo de duración del procedimiento establecido en esta Orden será de 6 meses.

Artículo 2.– Podrán participar todos aquellos Centros privados concertados autorizados oficialmente para impartir ciclos formativos de Formación Profesional en la CAPV, regulados en el Decreto 32/2008, de 26 de febrero, por el que se establece la ordenación general de la formación profesional del sistema educativo.

Artículo 3.– La oferta parcial de Ciclos formativos de Formación Profesional se autorizará y, en su caso, financiará para el curso 2009-2010, y deberá ser incluida en el Plan Anual del Centro para dicho curso académico.

La autorización a un centro de esta modalidad no implica necesariamente su financiación. Aquellos centros que obtengan autorización pero no financiación a través de la presente Orden, deberán ratificar su voluntad de continuar con la impartición de ciclos formativos en la modalidad de oferta parcial.

Artículo 4.– La elaboración de la propuesta de oferta parcial corresponde al equipo directivo sobre la base de los datos aportados por el profesorado implicado en los Ciclos Formativos a los que se vincule la oferta parcial o

eskuordeturiko batzordeak, eta/edo zuzendaritza-taldeak bere kabuz emandakoak izango dira.

5. artikulua.– 1.– Ikasketa Burutzari dagokio baimendutako eta, hala badagokio, finantzatutako eskaintza partziala abian jartzea eta horren jarduerak koordinatzea. Lan horiek Ikasketa Burutzak berak egingo ditu edo, bestela, berak eskuordetzen duen irakasleak, modalitate horretako prestakuntza-koordinatzailea izango denak. Koordinatzaile horrek, aldiro, eskaintzaren eta euren jardueren garapenari buruzko informazioa emango dio ikasketa-burutzari; orobat, zuzendaritza-taldearen bileretara joan ahal izango da, gai honekin zerikusia duten gaiak aztertzen direnean.

2.– Ikastetxeak, antolatzeko duen autonomiaren arabera, koordinatzaileen irakastorduak egokitu ahal izango ditu, eskaintza partzialean duten zereginarekin bateragarriak izan daitezen. Egokitzapena irakastorduen kopuruan eta banaketan egingo da. Horretarako, aintzat hartuko dira ikasturte-hasierako zirkularretan azaldutako arauak, dagozkien irakaskuntzetakoak, eta ikastetxearen ordutegi-aukera.

II. KAPITULUA
LANBIDE HEZIKETAKO HEZIKETA-ZIKLOETARAKO SARRERA-PROBA GAINDITZEKO PRESTAKUNTZA

6. artikulua.– Agindu honen 2. artikuluan aipatzen diren ikastetxeek, era berean, 2009-2010 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloetarako sarrera-proba prestatzeko prestakuntza-aldiak antolatzeko baimena eta dirulaguntza eskatu ahal izango dute. Prestakuntza hori Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialean ematea arautzen duen 2008ko ekainaren 3ko Aginduaren 2. artikuluan zehazten diren pertsonentzat izango da.

7. artikulua.– Lanbide Heziketako heziketa-zikloetarako sarrera-proba prestatzeko prestakuntza-aldiak antolatzeko baimena eta dirulaguntza lortzeko baldintzak eta betebeharrak izango dira Agindu honen aurreko artikuluetan zehazten direnak.

8. artikulua.– Lanbide Heziketako heziketa-zikloetarako sarrera-proba prestatzeko prestakuntza-aldiak irakasteko baimena nahiz finantzaketa eskatzen duten ikastetxeek Agindu honen 9. artikuluan aipatzen diren I. eta II. eranskinetan adieraziko dituzte eskatzen dituzten prestakuntza-aldi horiei dagozkien xehetasunak, betiere Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialean ematea arautzen duen 2008ko ekainaren 3ko Aginduaren 16. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta.

por una comisión delegada por dicho profesorado, y/o por iniciativa del propio equipo directivo.

Artículo 5.– 1.– Corresponde a la Jefatura de Estudios velar por la puesta en práctica de la oferta parcial que se autorice y, en su caso, financie, y coordinar personalmente las actividades incluidas en la misma o delegar esta función en un profesor o profesora en calidad de Coordinador o Coordinadora de la modalidad formativa. De ser así, el Coordinador o la Coordinadora informará periódicamente a la Jefatura de Estudios del desarrollo de la oferta y de cada una de sus actividades y podrá asistir a las reuniones del Equipo directivo en que se traten cuestiones relacionadas con la misma.

2.– El Centro, en el ámbito de su autonomía organizativa, podrá adaptar los horarios lectivos de los coordinadores o las coordinadoras para compatibilizarlos con su función en la oferta parcial, tanto en cuanto a número de horas lectivas como a distribución de las mismas, y siempre cumpliendo la normativa expresada en las Circulares de comienzo de curso de las enseñanzas correspondientes y de acuerdo con las disponibilidades horarias del Centro.

CAPÍTULO II
PREPARACIÓN PARA LA SUPERACIÓN DE LA PRUEBA DE ACCESO A CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL

Artículo 6.– Los Centros educativos a los que se refiere el artículo 2 de la presente Orden podrán solicitar, asimismo, autorización y financiación para la organización de periodos formativos para la preparación de la prueba de acceso a Ciclos Formativos de Formación Profesional, en el curso 2009-2010, dirigidos a aquellas personas a las que se refiere el artículo 2 de la Orden de 3 de junio de 2008, por la que se regula la impartición de Ciclos Formativos de Formación Profesional en la modalidad de oferta parcial.

Artículo 7.– Las condiciones y requisitos de participación para la autorización y financiación para la organización de periodos formativos para la preparación de la prueba de acceso a Ciclos Formativos de Formación Profesional son los que se establecen con carácter general en la presente Orden.

Artículo 8.– Los Centros educativos que soliciten tanto autorización como financiación para impartir estos periodos formativos para la preparación de la prueba de acceso a Ciclos Formativos de Formación Profesional incluirán en los anexos I y II a los que se refiere el artículo 9 de la presente Orden, los detalles correspondientes a los periodos formativos que solicita, observando siempre lo establecido en el artículo 16 de la Orden de 3 de junio de 2008, por la que se regula la impartición de ciclos formativos de Formación Profesional en la modalidad de oferta parcial.

III. KAPITULUA
ESKABIDEAK ETA AURKEZTEKO EPEA

9. artikulua.– 1.– Ikastetxearen legezko ordezkariak izango du espedientea hasteko ardura. Horretarako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

– Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariari zuzendutako eskabidea, ikastetxearen legezko ordezkariak izenpetuta eta zigilatuta, eskaintza partziala irakasteko baimena eta dagokion finantzaketa eskatzeko. Eskabide horretan, besteak beste, zein prestakuntza-ekintzarentzat eskatzen den baimena eta prestakuntza-ekintza bakoitzari dagokion aurrekontuaren banakapena zehaztu behar dira (I. eranskina).

– Laburpen-fitxa, ikasturtean garatuko den moduluen eskaintzaren deskribapenarekin; non oinarrizko argibideak adieraziko diren (II. eranskina).

– Klaustroaren akta; idatziz jasoko da heziketa-zikloko eskaintza partziala eta bere jarduerak ezagutzen dituela, eta, halaber, proiektu horrek ikastetxearen barne-antolakuntzan izan dezakeen ondorioaren erantzukizuna bere gain hartzen duela (III. eranskina).

– Ordezkaritza Organo Gorenaren akta; idatziz jasoko da eskabidearekin bat datorrela, aurkeztutako eskaintza ezagutzen eta onartzen duela, eta, orobat, hitz ematen duela proiektua egiteko behar diren neurriak hartuko dituela eta Ikastetxearen Urteko Plangintzan sartuko duela, onartzen bada (IV. eranskina).

2.– Heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasteko baimen-eskabidearekin batera, eskaintza horri dagokion dirulaguntza eskatuko da eta horretarako honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

– Ikastetxearen legezko ordezkariaren zinpeko aitorpena, xede bereko beste deialdi batean ez duela izenik emango egiaztatzen duena (V. eranskina).

– Ikastetxearen legezko ordezkariaren zinpeko aitorpena, egiaztatzen duena ikastetxea ez dagoela Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluaren 5. paragrafoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatutakoak, ezarritako arrazoiren baten eraginpean (VI. eranskina).

– Zerga-betebeharrak bete direla ziurtatzen duten agiriak, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 1997ko martxoaren 21eko Aginduan xedatutakoaren arabera (apirilaren 21eko EHAA).

– Titularra pertsona juridikoa bada, eskatzaileak dirulaguntza hau eskatzeko ahalorde nahikoa duela egiaztatu beharko du.

3.– Halaber, ikastetxeek eskaintza honen beharrari buruzko txostena aurkeztu beharko dute. Txosten horretan azaldu beharko dute, ikastetxeak eragina duen zonaldeko ekoizpen-sistemaren eta ikasleen beharrekiko

CAPÍTULO III
SOLICITUDES Y PLAZO DE PRESENTACIÓN

Artículo 9.– 1.– Corresponde iniciar el expediente a la persona representante legal del Centro, con la documentación siguiente:

– Solicitud de autorización y, en su caso, financiación, sellada y firmada por la persona representante legal del Centro, dirigida a la Directora de Aprendizaje Permanente, entre cuyos datos se recogerán las acciones formativas para las que solicita autorización y la financiación que se solicita para cada una ellas, incluyendo el desglose del presupuesto de cada una de las acciones (anexo I).

– Ficha resumen con la descripción de la oferta de módulos que se desarrollará en el curso, en el que aparecerán los aspectos que aportan una información básica (anexo II).

– Acta del claustro en la que se haga constar expresamente que conoce la oferta parcial de Ciclos Formativos y cada una de las actividades que la constituyen, y, asume las repercusiones que dicha oferta pueda tener para la organización interna del Centro (anexo III).

– Acta del Órgano Máximo de Representación en la que conste su conformidad con la solicitud, el conocimiento y la aprobación de la oferta presentada, así como el compromiso de adoptar las medidas necesarias para su realización e incluirlo en el Plan Anual del Centro, en caso de ser aprobado (anexo IV).

2.– Junto con la solicitud para la autorización a impartir Ciclos formativos en la modalidad de oferta parcial se solicitará la subvención correspondiente, a cuyos efectos se acompañará la siguiente documentación:

– Declaración jurada de la persona representante legal del Centro de no acogerse a otra convocatoria con el mismo objeto (anexo V).

– Declaración jurada de la persona representante legal del Centro que acredite que no están incursos en alguna de las causas establecidas en el apartado 5 del artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, modificado por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres (anexo VI).

– Documentación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias, de acuerdo con lo establecido en la Orden de 21 de marzo de 1997 del Consejero de Hacienda y Administración Pública (BOPV de 21 de abril).

– En caso de que la persona titular sea una persona jurídica, el o la solicitante deberá acreditar tener poder bastante para solicitar la presente subvención.

3.– Además los centros educativos presentarán una memoria justificativa de la necesidad de impartición de esta oferta, explicando el ajuste de la oferta que se solicita a las necesidades del sector productivo del ámbito de

eskaintzaren egokitzapena eta, era berean, nola eskaintza horrek osatzen dituen dagoeneko zonaldean dauden eskaintzak edota bere zonalde bereko beste ikastetxe batzuek aurkeztu dituzten eskaintzak.

10. artikulua.– 1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearen ebazpenaren bidez egiten den urteko deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

2.– Beharrezko agiriak aurkeztu beharko dira Hezkuntza Saileko ordezkaritzetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako bulegoetan.

IV. KAPITULUA
HAUTAKETA ETA EBAZTEKO PROZEDURA

11. artikulua.– Heziketa-zikloen eskaintza partzialari buruzko proposamenak eta euren prestakuntza-jarduerak onartu aurretik, deialdi honetako baldintzak betetzen dituzten egiaztatuko da eta Agindu honen VII. eranskinean jasota dagoen baremoaren arabera balioetsiko dira. 50 puntu gutxienez lortuko dituzten eskaintzei besterik ez zaie baimena emango.

Baimendutako eskaintzaren finantzaketa lehiaketa bidez zehaztuko da. Punturik gehien daukaten eskaerak finantzatuko dira, erabilgarri dauden aurrekontu-kredituak edo horien eguneratzetik sortutakoak agortu arte.

12. artikulua.– Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzak Lanbide Heziketako heziketa-zikloen lanbide-moduluak irakasteko eta heziketa-zikloetan sartzeko probak prestatzeko ezarritako gehienezko modulu ekonomikoak honako hauek dira:

– Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloen lanbide moduluak: 98 euro/orduko.

– Soldadura eta galdaragintza erdi-mailako heziketa-zikloaren Giro naturaleko soldadura eta Babes-giroko soldadura lanbide-moduluak: 116,50 euro/orduko.

– Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetarako sarbide-proben prestakuntza: 16.000,00 euro (360 h).

Finantzaketa goi-mailako heziketa-zikloetarako sarrera-proben zati orokorra irakasteko baino eskatzen ez bada, erabiliko den modulu ekonomikoa 8.000,00 eurokoa izango da (180 h).

influencia del centro y a las necesidades formativas del alumnado al que se va a destinar esta oferta formativa, así como la complementariedad de dicha oferta con las ofertas existentes o propuestas por otros centros de su misma zona de influencia.

Artículo 10.– 1.– El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir del día siguiente a la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– La documentación se presentará en las Delegaciones Territoriales de Educación o en cualquiera de las dependencias previstas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

CAPÍTULO IV
SELECCIÓN Y PROCEDIMIENTO DE RESOLUCIÓN

Artículo 11.– La autorización de las diferentes propuestas de oferta parcial de Ciclos Formativos y de las actividades formativas que las constituyen, se realizará, una vez comprobado el cumplimiento de los requisitos de la presente convocatoria, previa valoración de las mismas de acuerdo con el baremo que se establece en el anexo VII de la presente Orden. Se autorizarán sólo a aquellas ofertas que hayan obtenido al menos 50 puntos.

La financiación de la oferta autorizada se determinará por el procedimiento de concurso, financiando aquellas solicitudes con mayor puntuación hasta agotar los créditos presupuestarios disponibles o aquellos que resulten de su actualización.

Artículo 12.– Los módulos económicos máximos para la impartición de los módulos profesionales pertenecientes a los ciclos formativos de Formación Profesional, y para la preparación de las pruebas de acceso a ciclos formativos durante el curso 2009-2010 son los siguientes:

– Módulos profesionales de ciclos formativos de grado medio y grado superior: 98 euros/hora.

– Los módulos profesionales Soldadura en atmósfera natural y Soldadura en atmósfera protegida pertenecientes al ciclo formativo de grado medio Soldadura y calderería: 116,50 euros/hora.

– Preparación de las pruebas de acceso a ciclos formativos de grado medio o de grado superior: 16.000,00 euros (360 h).

En caso de que solamente se solicite financiación para la parte general de las pruebas de acceso a grado superior, el módulo económico a aplicar será de 8.000,00 euros (180 h).

Emandako dirulaguntza ezingo da inolaz ere izan irakaskuntza horiek irakastetik sortutako eta behar bezala justifikatutako aurrekontu-defizita baino handiagoa.

13. artikulua.– Aurreko artikuluan aipatutako proposamenen balioestea xede horretarako sortutako Ebaluazio Batzordeak egingo du. Batzorde horretan ondoko kideok egongo dira:

– Etengabeko Ikaskuntzako bi teknikari; bata batzordeburuaren egitekoak beteko dituena eta bestea idazkari-lanetan arituko dena.

– Lurralde Ordezkaritza bakoitzeko teknikari bat, Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak izendatutakoa.

– Lanbide Heziketako ikuskatzaile-koordinatzaile bat.

14. artikulua.– Ebaluazio Batzordeak (Agindu honetako 9. artikuluan aurreikusita dagoena) baimenduko diren heziketa-zikloen eskaintza partzialen proposamenak hautatuko ditu eta bakoitzari emango zaion dirulaguntza zehaztuko du.

15. artikulua.– 1.– Agindu honetan arautzen den deialdiaren ebazpena Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariari dagokio, Ebaluazio Batzordearen proposamena aztertu ondoren. Hartutako ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz, agindu honen 1.3 artikuluan prozedurarako gehienez ere jasotako epearen barruan.

2.– Administrazio-bidea agortzen ez duen ebazpen horren aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeari, berau argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, hilabeteko epean.

3.– Artikulu honetako 1. paragrafoan aipatutako epea amaituta, deialdi honen ebazpena argitaratu ez bada, interesatuek bere eskaria ezetsi egin dela ulertuko dute, gerora urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearekin zati batean aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan jasotako ondorioetarako.

V. KAPITULUA
JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

16. artikulua.– Eskaintza partzialaren bidez heziketa-zikloak irakasteko baimena eta dirulaguntza jasotako ikastetxeek heziketa-ziklo horien eskaintza partziala onartutako baldintzetan gauzatuko dutela bermatzeko Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzak hauen jarraipena egingo du Hezkuntza Ikuskaritzaren bidez.

17. artikulua.– 1.– Ikastetxe onuradunek azken txosten bat egingo dute, eta bertan, gastuen justifikazio-

En ningún caso la ayuda económica podrá superar el déficit presupuestario debidamente justificado derivado de la impartición de las enseñanzas.

Artículo 13.– La valoración de las propuestas citadas en el artículo anterior, será realizada por una Comisión Evaluadora creada al efecto, compuesta por:

– Dos personas técnicas de la Dirección de Aprendizaje Permanente, una de las cuales ejercerá la presidencia y la otra actuará como Secretaria.

– Una persona técnica de cada Delegación Territorial de Educación designada por la Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente.

– El inspector coordinador de Formación Profesional.

Artículo 14.– La Comisión Evaluadora prevista en el artículo 13 de la presente Orden, seleccionará las propuestas de oferta parcial de Ciclos Formativos a autorizar y determinará la subvención que, en su caso, ello conlleve.

Artículo 15.– 1.– Corresponde a la Directora de Aprendizaje Permanente, a propuesta de la Comisión Evaluadora, la resolución de la convocatoria regulada en la presente Orden. La resolución adoptada se notificará a las personas interesadas mediante su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco dentro del plazo máximo de duración del procedimiento expresado en el artículo 1.3 de la presente Orden.

2.– Contra dicha resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

3.– Transcurrido el plazo aludido en el apartado 1 de este artículo sin que se hubiera efectuado la publicación de la resolución de la convocatoria, las personas interesadas podrán entender desestimada su solicitud a los efectos del artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, parcialmente modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

CAPÍTULO V
SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN

Artículo 16.– Al objeto de garantizar la realización de la oferta parcial de ciclos formativos presentada por los Centros a los que haya sido concedida autorización y, en su caso financiación, para la impartición de ciclos formativos en esta modalidad, en las condiciones aprobadas, la Dirección de Aprendizaje Permanente realizará un seguimiento de los mismos, a través de la Inspección Educativa.

Artículo 17.– 1.– Los Centros beneficiarios realizarán una memoria final acerca del desarrollo y resulta-

az gain, baimendutako eta diruz lagundutako eskaintzan aurreikusitako helburuen garapen-maila eta emaitza partzialen berri emango da. Aipatutako txostenak VIII. eranskineko eskemaren arabera egin eta, bi aletan, dagokion Etengabeko Ikaskuntzako Lurralde-Unitateari igorri behar zaio 2009-2010 ikasturtea bukatu eta, gehienez ere, hilabeteko apean.

2.– Halaber, txostenak egindako gastuen ordainagiriak, fakturak, edo beste edozein frogagiri, jatorrizkoak zein fotokopia konpultsatuak jaso beharko ditu, betiere legez onartuta badaude eta emandako dirulaguntzari badagozkio.

18. artikulua.– Ikasturtea amaitzean, ikastetxeek bidalitako txostenean edo beharrezkoa den beste edozein datu nahiz txostenetan oinarrituta, dagokien Etengabeko Ikaskuntzako Lurralde-Unitateak ondoko agiriak igorriko dizkio Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzari:

– Ikastetxeen zerrenda. Zerrenda horrekin batera ikastetxe bakoitzari onartutako proposamenetan aurreikusitako helburuak zenbateraino bete dituzten zehaztuko da eta gutxieneko helburuak lortu ez badira, aipatu egingo da espresuki.

– Parte hartu duten ikasle-kopuruari eta ikasleek izan dituzten emaitzei buruzko txostena, heziketa-modulu bakoitzeko eta ikastetxeko.

